

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Flashen higaduragatik libre izan nahi zuen margolana

Ainhoa Salinas Díaz

Piztutako argiek iratzarri naute. Egunero bezalaxe koadroz inguraturik nago eta nire kalkuluek huts egiten ez badidate, edozein momentutan Pierre garbitzailea pasako da bisitarien zat dotore ager gaitzen guri hautsa kentzeko. Barkatu nire burua aurkeztu ez izana, baina seguruenik jadanik ezagutzen nauzue. Gioconda naiz (bai, nire senarrarengatik dut izen hau. Ai, patriarkatua...), nahiz eta beste batzuek Mona Lisa deitzen didaten. Hala ere, lagun minek bakarrik Mona deitzen didate.

Esan bezalaxe, Pierrek hautsa kendu eta apur bat beranduago lehenengo bisitari goiztiarrak ditugu. Ikusten nautenean batzuek desengainu handia sentitzen dute eta maiz entzuten ditut “gehiago espero nuen”, “neurritz kanpoko balioa ematen diote” edo antzeko adierazpenak. Horrelako zurrumurruez asebeteta nago. Besteengandik entzuten dituzten aurreiritziekin haien buruan nire itxuraren irudikapen faltsu bat sortu eta aurrez aurre nautenean ez naiz haiek espero zuten bezala. Honen ondorioz, etsipena dator. Urrunetik niregana etortzen ikusten ditut, irrika aurpegian islaturik ia korrika datoztela. Baina bat-batean, parez-pare gaudela, aurpegia desitxuratu egiten zaie eta askok berriz ere planoari begirada bat botatzen diote gela egokian daudela ziurtatzeko. Kopia bat naizela pentsatzera ere iritsi dira. Beste batzuk berriz, liluraturik geratzen dira eta txunditurik begiratzen naute. Sakeleko telefonoen eta kameraren flashek itsutu egiten naute nire irribarre hoberena eskaintzen diedan bitartean. Edertasunaren morroi bilakatu naute eta

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

nazkatuta nago jendearen itxaropenen arabera bizitzeaz. Ni naizen bezalakoa naiz eta norbaitek gustuko ez badu, aski du Louvrera datorrenean niregana ez etortzearekin. Nik nahi dudan bakarra askatasuna da. Gainera, gainontzeko koadroek bekaizkeriaz begiratzen didate. Jakingo balute zein itogarria den horrela bizitzea seguruenik ez lukete nire lekuan egon nahiko. Azkenean, beste egun nekagarri batek amaiera jotzen du. Eskerrak gauean denbora izaten dudan atsedena hartzeko eta hurrengo egunerako prestatzeko. Goizean piztu diren argiak itzaliz doaz orain.

Bat-bateko soinu batek esnatu nau. Zer demontre gertatzen da? Ezin dut ezer ikusi iluntasunean murgilduta nagoelako, baina, urrunean bi argi izpi ikus ditzaket eta gero eta gehiago hurbiltzen dira nigana. Esku-argiak itsututa, emakume baten ahotsa entzuten dut:

–Hauxe da, azkenean aurkitu dugu. Orain minutu pare batzuk besterik ez ditugu izanen hemendik ateratzeko, beraz izan bizkor.

Eta beste ahots baxu batek erantzun:

–Hau da dena, benetan? Beste zerbait espero nuen, ez dakit, txikiegia dirudi bost mila milioi euro balio izateko. Zuk ez duzu horrelakorik uste?

Benetan nire atsedenaldiran ere horrelako komentarioak jasan behar? Nire suminaz ohartu gabe, nire epaileak pixka bat nazkatuta dirudien bere kidearen erantzuna jasotzen du:

–Zer inporta du horrek? Nik ez dakit ezer arteari buruz. Gure lana koadroa lapurtzea da besterik ez. Beraz, egin dezagun lana dagokigun partea eskuratu ahal izateko.

Esku batzuek heldu eta jaitsi egiten naute, “kendu itzazue zuen esku nazkagarri horiek nire gainetik” oihukatzen gogoa daukat, baina ez zait ahotsik ateratzen. Segituan, alarma burrunbatsu bat entzuten da, baina ez dut ezer gehiago ikusteko denborarik zaku batean sartu eta iluntasunak irentsi egiten nauelako. Ez, ezin daiteke gertatu, ametsa izango da. Lapurren urrats azkarren soinuak oso erreala dirudi. Bien artean naramate. Mugimenduak

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

zorabiatzen nau. Mugitu nahiko nuke, edo oihukatu, baina alferrik da ezin baitut ezer egin, izoztuta egongo banintz bezala nago. Garai batean koadro honetan betierekotasunerako islatu zutena izatera behartuta nago. Nire pentsamendu eta sentimenduen preso naiz, ezer azaleratu ezinik, ez hitzik ez keinurik ere. Alarmaren soinua gero eta ahulagoa da. Sirenen txirrinek alarmaren soinua ordezkatzan dute, baina gu haiengandik aldentzen gara. Orduan, lapurretako ahots batek dio:

–Hara! Polizia! Eskerrak azkarrak izan garela, kalkulatu genuen baino lehenago etorri baitira.

Eta emakumeak erantzun:

–Ez zaitetz gehiegi fidatu, oraindik ez gara hemendik atera. Tira, jarrai dezagun ibiltzen kamionetaraino atentziorik ez emateko.

Hori esan bezain laster, kulunka gelditu egiten da eta, zorionez, nire buruak bueltak emateri uzten dio. Zertxobait beranduago guztiz gelditu eta nire markoaren beheko parteak lurra ukitzen duen bitartean irekitzen den ate baten soinua entzuten dut. Jarraian, lurretik jaso eta beste toki batean uzten naute. Aurretik aipatutako kamioneta dela suposatzen dut, baina ezin dudanez ezer ikusi ez nago seguru. Beste ate bat edo agian aurrekoaren berdina itxi egiten da. Non nago? Nora naramate? Galderek barrenak jaten dizkidate. Bat-batean, beste bi ate irekitzen dira eta kamioneta martxan jartzen da. Kamionetak ez dakidan helmugara gidatzen gaituen bitartean lapurretako batek poztasunez dio:

–Harrapa ezazu! Lortu dugu, Nicolle. Gainera, ez gaitu inork ikusi. Benetan talde bikaina egiten dugu, ezta?

Eta besteak lehor:

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

–Baietz suposatzen dut.

Orduan, besteak temati eta irrika ezkutatu ezinik:

–Tira Nicolle, beti muturtuta zaude, baina orain ez al zaude pozik? Aberatsak gara, entzun duzu? Aberatsak. Ferrari bat erosiko dut, edo agian Porsche bat eta Pariseko jatetxe hoberenean bazkaria. Beharbada afaria litzateke hoberena. Gero...

Emakumeak bukatu baino lehen moztu egiten du:

–Ez zaitez astuna izan Antoine.

Horrela, solasaldia amaitu egiten da eta berriz isiltasuna dator. Beraz, hemen gure bi lapurrak, Nicolle eta Antoine. Ez dakit zenbat denbora pasa den, baina kamioneta gelditu eta jaitsi egiten dira. Gero, berriz ere hartu egiten naute eta ibiltzen hasten dira, haien urratsen soinua entzun dezaket eta. Pixka batean gelditu egiten dira eta Nicollek hitz egiten du:

–Zer duzu, Antoine? Zergatik gelditu zara?

Besteak erantzuten dio:

–Ahaztu dudala koadroa hirugarren pisuraino leban igo behar dugula.

–Ez izan alferra eta goazen. Egunak laster argituko du eta ez dut bizilagunek ikusterik nahi.

Banaka-banaka eskaileretan gora joaten direla entzuten dut. Horietako batean kolpe bat jasotzen dut eta segituan Nicollek, bere onetik kanpo, oihukatzen dio Antoineri:

–Kontuz ibili! Koadroak atzamarkada ñimiño bat badu ere balioa izugarri jaitsiko da eta ezin izango duzu zure Ferrari maitea erosi.

Antoinek, errudun, erantzuten dio:

–Barkaidazu, besoak nekaturik ditut.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Azkenean, eskailerak igotzeari uzten diote eta Antoine arnasestuka dagoen bitartean atea irekitzen duten giltzak entzuten ditut. Beste behin hartu egiten naute segundo batzuk beranduago berriz ere uzteko. Ez naute inoiz hainbestetan ukitu. Izan ere, museoan nengoenean, beira baten atzean pasatzen nituen egunak eta egunak. Bisitarietako bat ni ukitzeko imintzio txikiena ere egiten bazuen, hor agertzen zitzaien museoko langileren bat errieta botatzeko. Museoko oroitzapenetan murgildurik nagoela estalkia kentzen didate eta denbora luzez iluntasunean egoteagatik minutu pare batzuk behar ditut nire ingurua ikusi ahal izateko. Ikusten dudan lehendabiziko gauza xehetasunez begiratzen didaten begi urdin pare bat dira, zehazki, gizon baxu eta gizen baten begiak. Zuzenean, Antoine dela ondorioztatzen dut eta bere atzean telefonoz hitz egiten dagoen neska altu ilehoria, Nicolle. Gero, gela aztertzeari ekiten diot. Egia esan, nahiko txikia da eta paretak biluzik daude, ez dago beste koadrorik. Lehio erraldoi batek etxeke egongela eta sukaldea argizatzen ditu. Ni asto baten gainean jarrita nago eta Antoine niri begira jarraitzen du. Nicollek telefonoa eseki eta honela dio:

–Nagusiak deitu du eta hurrengo astean koadroaren bila etorriko dela esan du. Orduangure parte emango digu eta gure lana amaituta egongo da. Orain, ohera noa eta zuk nahi baduzu sofan egin dezakezu lo.

Antoinek erantzun:

–Ondo da. Gabon, eta ondo lo egin!

Nicollek Antoineri erantzun gabe buelta eman eta ate batetik desagertu egiten da. Antoine sofarantz joaten da eta telebista pizten du. Zapping pixka bat egin ondoren albistegiak ematen ari den berri batek atentzioa eman dio. Pantailan nire argazki ugari agertzen dira eta horren azpian honela dioen lerroburua dago: “azken orduko albistea, gaueko ordu txikitan Gioconda koadro famatua

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Louvre museotik lapurtua izan da”. Aurkezlearen arabera, poliziak kasua aztertzen ari da eta lekukoen aitortpenen bidez gaizkileak zein koadroa aurkitzea espero dute. Hurrengo albistera pasatzean, Antoinek telebista itzali eta lo egiteko intentzioarekin sofán etzaten da. Ez dakit larriturik dagoen, baina horrela bada ez du horren zantzurik erakutsi. Beraz, geratzen zaidan gauza bakarra poliziak aurkitu arte itxarotea da, baina orain pixka bat deskantsatuko dut izandako sekulako gauaren ondoren.

Ez dakit zenbat egun pasa diren Nicolle eta Antoine museotik lapurtu nindutenetik, baina oraindik haien nagusia ez da nire bila etorri. Oso eroso egon naizela aitortu beharra daukat eta behin baino gehiagotan poliziak ni ez aurkitzea desiratu dudala. Gainera, museoan ez bezala, ez nago egunero jenderen flashengatik itsututa bizitzera kondenatuta. Aitzitik, aurrez aurre dudán leihotik Paris ederra begiesten igarotzen ditut egunak. Hobekuntza nabaria. Azkenean, askatasuna. Otorduetan, Nicollek eta Antoinek, mahaian esertzean, telebista pizten dute eta maiz agertu dira nire lapurketaren inguruko albistek, baina haiek ez dirudite batere kezkatuak eta, hortaz, ni ere ez.

Gaur, aurreko goizetan bezala hasi dut eguna; leihotik egunsentia ikusten Antoine sofán zurrunga dagoen bitartean. Beranduegi, Nicolle bere logelatik atera eta kafea prestatzen du. Kafearen usainak Antoine esnatu eta Nicollerekin bat egiten du sukaldeko mahaian. Horrelako goizak errutina bilakatu dira eta benetan gustuko ditut. Bat-batean, errutina danbateko batez apurtu da: etxeako atea ireki eta polizia talde bat sartzen da Antoine eta Nicolle pistolaz destatzen dituztela. Oihuka honela diote:

–Igo itzazue besoak! Atxiloturik zaudete Gioconda koadroaren lapurketagatik.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

LEHENENGO SARIA:

Nicolle eta Antoineren aurpegia itxuragabetu egiten dira eta etxetik ateratzen dituzten bitartean bi polizia nigana hurbiltzen dira. Nire oporren amaiera dela suposatzen dut eta berriz ere museora eramango naute. Gezurra badirudi ere, Nicolle eta Antoinen falta sentituko dut. Denok espetxeratuko gaituzte, kaiola desberdinetan. Argi dago bizitza hau izatera kondenatuta nagoela, nire patua sahiestu ezinik.